

Nire bizitzaren  
amaierari buruzko erabaki  
garrantzitsuetarako

**nik aukeratzea  
erabakitzen  
dudalako**

## Nola aukeratu dezaket?

**Aurretiazko Borondateen Agiriaren (ABA)** bidez bizitzaren amaieran nire borondatea adierazteko egoeran ez nagoenean jaso nahi dudan osasun-arreta aukeratu dezaket.

Agiria egiteko, beharrezkoa da aldez aurretik gogoeta egitea, pertsona bakoitzaren nahiari hobekien egokitzen zaion erabakia hartzeko. Osasunaren arloko profesionalen argibideak eta babesa, bai eta konfiantzazkoak eta hurbilekoak zaizkigun beste pertsona batzuenak ere, lagungarriak izango zaizkigu.

## Zer sar dezaket ABAn?

- Nire bizi-proiektua orientatzen duten balio eta aukera pertsonalak, eta, zehazki, bizitzaren azken uneetan edo ezintasun fisiko edo psikiko larria gertatzen denean hartu beharreko erabakietarako argigarriak izan daitezkeenak.
- Osasun-egoera zehatzak, non tratamendu jakin batzuk onartu edo errefusatzeko direla kontuan hartzea nahi dudana.
- Egoera horietan hartu nahi ditudan tratamendu eta/edo zainketei buruzko jarraibideak. Haien artean, hauei buruzko erabakiak:
  - Zainketa aringarriak: gaixotasuna aurreratuta dagoenean ematen den zainketa, bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin.
  - Organoak edo ehunak ematea, transplanteetarako.
  - Hiltzeko laguntza ematea (eutanasia).

## Nork eska dezake?

**Hamasei urtetik gorakoek** edo emantzipatutako adingabeek eska dezakete, baldin eta gaitasun nahikoa badute eta libreki ari badira.

## Nola egiten da?

Aurretiazko borondateen agiriak balio izateko, honako modu hauetan egin daiteke:

- Zure osasun-etxeko gizarte-langilearen edo Aurretiazko Borondateen Erregistroko langileen aurrean (Amaia kalea 2A, Iruña).
- Lekuko moduan jokatu duten eta adinez nagusi izango diren hiru pertsonaren aurrean. Halakoetan, pertsona horietatik bik, gutxienez, ezin izango dute izan ez bigarren mailarainoko ahaide-loturarik ez eta ondare-harremanik ere agiri-egilearekin.
- Notarioaren aurrean.

**Argibide gehiagotarako:**  
[aurretiazkoborondateak.nafarroa.eus](http://aurretiazkoborondateak.nafarroa.eus)

